

**BULEGOKO MATERIALA– Maila Aurreratua****Hornitzaileen checklista: Ingurumen irizpideak****1. ERANSKINA: ZERBITZUEN BETEKIZUNAK**

Markatu “Bai” zutabeko laukia, nahitaezko gutxieneko zehaztaperen guztiak eta betetzeko konpromisoa hartu duzun zehaztaperen baloragarri guztiak betetzen direla berresteko.

Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo haiek bete direla ziurtatzen duen abala ez ekartzeak esleipen-prozesuko hurrengo faseetatik kanpo uzten du, automatikoki, eskaintza.

Ebalua daitezkeen zehaztaperenetan, zehaztapena betetzen dela ziurtatzen duen abala ez ekartzeak baliogabetu egiten du hari lotutako puntuazioa, eskaintzarik onuragarriena identifikatzeko erabiltzen dena.

DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA / MEMORIAKO ORRIALDEA
<b>Eskaerak egitea</b>		
Eskaerak modu elektronikoan egiteko aplikazioa, homologatutako produktuen arabera eta administrazioko erabiltzaile bakoitzarentzat erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat dituen	<input type="checkbox"/>	1
Hornikuntza kaxa berrerabilgarrietan egitea	<input type="checkbox"/>	1

IRIZPIDE BALORAGARRIAK	PUNTUEN EHUNEKOAK	BAI	ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA
<b>Hornikuntza eta enbalajea</b>			
Material birziklatu askoko kaxak (gutxienez, 50%)		<input type="checkbox"/>	2,3

## 2. ERANSKINA: PRODUKTUEN BETEKIZUNAK

DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA / MEMORIAKO ORRIALDEA
Paper birziklatuzko produktuak	<input type="checkbox"/>	2,3,4
PP, PE edo zelulosa azetatozko plastikozko zorroak	<input type="checkbox"/>	2,3
Lakatu gabeko lapitzak	<input type="checkbox"/>	1,3
Berriz kargatzeko boligrafoak	<input type="checkbox"/>	1,3
Gutxienez %50ean birziklatutako boligrafoak	<input type="checkbox"/>	2,3
Konposta egiteko balio duten materialez egindako boligrafoak (papera, egurra, arto-fekula...)	<input type="checkbox"/>	2,3,4
Disolbatzaile organiko lurrunkorrik gabeko itsasgarriak	<input type="checkbox"/>	2,3
Disolbatzaile organiko lurrunkorrik gabeko zuzentzeko likidoak	<input type="checkbox"/>	2,3

**PRODUKTU-ZERRENDA** (zuen beharren arabera bete):

Gehitu behar adina ilara.

DESKRIBAPENA	AURREKO URTEKO KONTSUMOA	MARKA	MODELOA	UNITATEKO PREZIOA	ALE-KOPURUA/ ONTZI	INGURUMEN IRIZPIDEAREN KODEA *

\* "Ingurumen-irizpidearen kodea" zutabean, adierazi beharko da produktuak betetzen dituen ingurumen irizpideak. Horretarako, "Argibideak" atalean ageri den taula erabili beharko da.

**ARGIBIDEAK**

«Abal mota/Memoriako or.» zutabean, ingurumen ziurtagiriak eta ekoetiketak jaso behar dituzu, espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen duzula abalatzeko. Dena dela, beste egiaztigiri baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak bete direla argi eta garbi frogatzen bada.

Taula honetan produktuek bete ahal dituzten ingurumen irizpideak eta irizpide hauek era egokian identifikatzeko kodeak aurkezten dira.

INGURUMEN IRIZPIDEAREN KODEA *	INGURUMEN-IRIZPIDEA	ABAL-MOTA
1	Material birziklatua	2,3,4
2	Material bakarreko produktuak	1,3
3	TCF paper edo kartoizko produktuak	2,3,4
4	PP, PE edo zelulosa azetatozko/kautxu naturalezko substantzia plastikoak [borragomak]	2,3
5	Berriro kargatzeko produktuak eta horien kargak	1,2,3
6	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak	2,3
7	Disolbatzailerik gabeko produktu lehorrak	1,2,3
8	Baso-ustiapen iraunkorretako zura	4
9	I motako etiketa ekologikoetako batean zehaztutako substantzia kaltegarrien irizpideak jarraituz sortutako produktuak	4
10	Banakako ontzirik gabe eta /edo 5 produktu edo gehiagoko kaxatan hornitzen diren produktuak	1,3

Hauek dira “**Abal-mota**” zutabearen adierazten diren abal-moten kodeak:

1. Eskaintzailearen aitortpena eta deskribapena	
2. Produktuaren fitxa teknikoak edo deskribatzailea	
3. Fabrikatzailearen aitortpena	
4. Etiketa ekologikoak	